



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN PREMIAZKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal buru ordea

AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA

zinegotziak

ENEKO ELOLA JAUREGI

MIREN JOSUNE ZUBELDIA

ETXEBERRIA

IGO EIZAGIRRE SAEZ

OIER MINTEGI ZEBERIO

ENERITZ ITURBE URDALLETA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2017ko martxoaren 2an, arratsaldeko 19:30tan, eta Udaleko alkate udalburu ordea, Aitziber Abasolo de la Peña izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. PREMIATASUNAREN JUSTIFIKAPENA

Alkate ordeak, hitza harturik, dio:

Premiatusunezko bilkuraren justifikazioa, hainbat moztio epean onartu beharra da.

Premiatusunezko bilkura egiteko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

BIGARRENA. GILTZARRIA TOLOSALDEAREN MOZIOA

Tolosaldeko Giltzarria herritar dinamika da, Tolosaldeko Gure Esku Dagoren enbor beretik sortua, eta gure herrian ere badu ordezkari bat. Martxoaren 19ko galdeketa antolatzea du xede, erabakitze eskubidea aldarrikatze egitarizera pasaz.

Eskualdeko herritar ororen bilgune izan nahi du Giltzarriak, erabakitze eskubidea, emaitzaren gainera, gizarte kohesiorako dagoen tresna egokiena baita. Nolako Euskal Herria nahi dugun erabaki nahi dugu, gure herritik hasita, eskualdearen indarraz, eskualdeko biztanlearen iritzien babesaz.

Udal honek, herritarren ordezkari bat duen heinean, begi onez ikusten du Martxoaren 19ko galdeketa, eta are gehiago, dei egiten die herritar guztiei bertan



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

parte hartzera, iritzia agertzera. Herri bat garelako, erabakitze eskubidea dugulako eta herritarron garaia delako.

Guztion partehartzea ezinbesteko baldintza da erabakitze ariketa bat aurrera eramateko. Guztiok gara giltzarri. Martxoaren 19an, erabaki nahiaren espresio izango gara, ezberdinen arteko topagune, elkarbizitzaren giltzarri.

Europar martxan dabilen trena Euskal Herriko geltokira iritsi da, baita guk gobernatzen dugun herrira ere. Bertara igotzeko gonbitea luzatzen dizuegu herritar guztioi, honako galderaren inguruan zure iritzia ematera:

Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?

Irudikatu dezagun jende zoriontsua herri libre batean.

Bozkatu, zure iritzia jakin nahi dugu!

Giltzarriak Tolosaldeak aurkeztutako mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zortziak laurdena gutxiagotan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATE ORDEAK

Izpta: Aitziber Abasolo de la Peña

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK

Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia